

<b>LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK 2019KO ABENDUAREN 16AN EGINDAKO BILKURAREN AKTA</b>	<b>ACTA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE TERRITORIO CELEBRADA EL DÍA DIECISEIS DE DICIEMBRE DE 2019</b>
<b>BILDUTAKOAK:</b>	<b>SEÑORES ASISTENTES:</b>
<b>PRESIDENTEA:</b>	<b>PRESIDENTE:</b>

JANIRE OCIO CELADA andrea

<b>BATZARKIDEAK:</b>	<b>V O C A L E S:</b>
----------------------	-----------------------

JOSEBA ARREGI MARTÍNEZ jauna  
ALVARO GONZÁLEZ PÉREZ jauna  
IRANTZU URIARTE GÓMEZ andrea  
IÑIGO URKITZA YAÑEZ jauna  
GONZALO ZORRILLA-LEQUERICA PAÑEDA jauna (EDUARDO ANDRADE  
AURRECOEHEA jaunaren ordezt)  
NATALIA ARANDUY ZUAZAGOITIA andrea  
NEREA GUIJARRUBIA GARCIA andrea  
IBON RODRÍGUEZ LARRINAGA jauna (ITXASO MASEDA SARATXO andrearen  
ordezt)  
ASUNCIÓN OLAETA PEREZ DE MENDIOLA andrea (GONZALO AYO JIMENÉZ  
jaunaren odezt)  
IGNACIO ROBLES FERNÁNDEZ jauna

<b>ARKITEKTOA:</b>	<b>ARQUITECTA:</b>
--------------------	--------------------

AMAIA DE FELIPE PRIETO andrea

<b>INGENIARIA:</b>	<b>INGENIERO:</b>
--------------------	-------------------

PEDRO M<sup>a</sup> SACRISTÁN GONZÁLEZ jauna

<b>KONTRATAZIO, ONDARE ETA EROSKETAK SAILAKO ARDURADUNA:</b>	<b>RESPONSABLE DE LA UNIDAD DE CONTRATACIÓN, PATRIMONIO Y COMPRAS:</b>
--	--

LEIRE BILBAO FUENTE andrea

<b>IDAZKARIA:</b>	<b>SECRETARIA:</b>
-------------------	--------------------

ISABEL PERAL AGUIRREGOITIA andrea

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura  
Aretoan, 2019ko abenduaren 16an.

Egun horretako 9:30etan, Lurraldeko  
Informazio Batzordea elkartu zen;  
idazpuruan zerrendatutako pertsonak  
bertaratu ziren, aurretik egindako  
deialdiko gai-zerrendan jasotako gai  
buruz hitz egiteko: Bileraren emaitza  
honako hau izan zen:

Gai-zerrendako gaiak aztertzen hasi  
aurretik, Ibon Rodríguez jaunak 2.,  
4., 5. eta 6. gai buruzko deialdia  
zalantzan jarri du, horiei dagozkien  
euskarazko proposamenak  
deialdiaren biharamunean bidali  
baitziren.

Informazio Batzordeko buruak eta  
idazkariak Udal Araudi Organikoaren  
30. artikulua aipatu dute eta adierazi  
dute deialdia bi hizkuntzatan egin  
zela, eta deialdia egin zen egunean  
adierazi diren proposamen horiek  
gaztelaniaz igorri zirela eta euskaraz  
hurrengo egunean, eta igorpenean  
berariaz aipatzen zela gai guzti  
buruzko espedienteak kontsultatzeko  
aukera zegoela Udal Bulego  
Teknikoan ("Santa Klara" finka, Foru  
kalea, 6).

Jarraian, gaiak aztertzen hasi dira.  
Hauxe izan zen emaitza:

### **1.- 2019.11.21EAN EGINDAKO BILERAREN AKTA ONESTEA**

En el Salón de Plenos del  
Ayuntamiento de Getxo, a dieciseis de  
Diciembre de 2.019.

Se reunió, a las nueve horas y treinta  
minutos de este día, la Comisión  
Informativa de Territorio, con  
asistencia de las personas  
relacionadas al encabezamiento, para  
tratar los asuntos incluidos en el  
Orden del Día de la previa  
convocatoria.

Antes de comenzar con los asuntos  
relacionados en el Orden del Día, Ibon  
Rodríguez cuestiona la convocatoria  
respecto de los asuntos nº 2, 4, 5, y  
6, pues las propuestas en Euskera  
correspondientes a los mismos fueron  
remitida al día siguiente de la  
convocatoria.

La Presidenta y la Secretaria de la  
Comisión Informativa se remiten al  
Art. 30 del Reglamento Orgánico  
Municipal y destacan que la  
convocatoria se hizo en bilingüe, con  
remisión de las indicadas propuestas  
en castellano el día de la convocatoria  
y en euskera al día siguiente, y con  
mención expresa a la posibilidad de  
consultar los expedientes  
correspondientes a los distintos  
asuntos en la Oficina Técnica  
Municipal, Finca "Santa Clara", calle  
Fueros nº 6.

Seguidamente se abordan los  
asuntos. Este fue el resultado:

### **1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL 21.11.2019.**

Aldaketarik gabe onartu zen 2019.11.21eko bilkurari dagokion akta.

## **2.- "GETXO AQUARIUM" ZERBITZU PUBLIKOAREN PRESTAKUNTZAREN AMAIERAKO PROPOSAMENA**

Ingurumeneko Hiri Zerbitzuetako eta Ingurumen Kalitateko zinegotziaren proposamenari buruzko irizpena eman aurretik, Ibon Rodríguez jaunak 40.525/2.019 zenbakiarekin aurkeztutako idazkia irakurri du. Idazki hori elkarrekin sinatu dute ELKARRREKIN PODEMOS eta EH-Bildu udal taldeek.

Hasiera baten, 40.525/2.019 zenbakiko idazkia proposamena baino lehen bozkatu beharko den zuzenketa gisa tratatzen da. Hori guztia, hurrengo Osoko Bilkurari begira argibide gehiago ematea baztertu gabe.

40.525/2.019 proposamenak Aquariuma Larrañazubiko Ingurumeneko Gelarekin lotu nahi du, eta gobernu taldeari eskatzen zaio horretarako behar diren legezko jarduketak gara ditzala, instalazioak eta lanpostuak lehenetsun gisa mantenduz. Jarduera horiek gauzatzen diren bitartean, udalak Aquariumak irekita jarrai dezan beharrezkoak izango diren urratsak eman ditzala eskatu dute, lanpostuak mantenduz. Hori guztia inplikaturako arlo guztiei jakinarazita egingo da.

Hala Ibon Rodríguez jaunak nola Ignacio Robles jaunak euren proposamena arrazoitzeko azalpenak eman dituzte, eta azpimarratzekoak

Fue aprobada sin modificaciones el acta correspondiente a la sesión de 21.11.2019.

## **2.- PROPUESTA DE CESE DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO "GETXO AQUARIUM"**

Antes de dictaminar la propuesta del Concejal de Servicios Urbanos Ambientales y Calidad Ambiental, Ibon Rodríguez procede a dar lectura al escrito presentado bajo el nº 40.525/2.019, que suscriben conjuntamente los grupos municipales ELKARRREKIN PODEMOS y EH-BILDU.

En principio, el escrito nº 40.525/2.019 se trata como una enmienda que habrá de ser votada antes de la propuesta. Todo ello sin perjuicio de mayores aclaraciones cara a la próxima sesión plenaria.

La propuesta nº 40.525/2.019 pretende vincular el Aquarium al Aula Medioambiental de Larrañazubi e insta al equipo de gobierno a que desarrolle las actuaciones legales necesarias dirigidas a tal fin, con el mantenimiento de las instalaciones y los puestos de trabajos como prioridad. Solicitan que, mientras tales actuaciones tienen lugar, el Ayuntamiento dé los pasos necesarios para que el Aquarium siga abierto, manteniendo los puestos de trabajo. Todo ello con notificación a todas las Áreas implicadas.

Tanto Ibon Rodríguez como Ignacio Robles ofrecen explicaciones para motivar su propuesta, destacando el interés de la instalación desde el

dira instalazioak hezkuntzaren ikuspegitik duen interesa eta hura egokitzeko aukera, lanpostuak errespetatuz bere jarraipena lortzeko.

Joseba Arregi jaunak udalaz gaindiko izaera duen zerbitzu bat dela adierazi du, Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako hitzarmen batean oinarrituta dagoena, eta bertan behera geratzen dela foru finantzaketa desagertzen denean; nolahi ere, gogoan izan behar da hitzarmenaren indarraldia, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legetik ondorioztatzen dena. Aldi berean, bere ustez, proposamenak ez du behar beste babes eduki.

Ibon Rodriguez jauna bat dator azken baieztapen horrekin, izan duten denbora gutxi izan delako, eta uste du espedientea ez dela guztiz argia izan. Denboran zehar izandako hainbat jarduketa aipatu ditu, eta ondorioztatu du, bere ustez, ez dela informazio guztia eman eta, azkenean, presaka eta korrika aurkeztu dela proposamena. Itxiera udalaren erabakia dela uste du, eta ez dela egia esan azaroko Osoko Bilkuran aurrekontu bat onartu zenean, oso termino zehatzetan, jakinda ez zela Aldundiaren laguntzarik izango.

Joseba Arregi jaunak azaldu nahi du udalaren asmoa egokitzea zela, ez iraungitzea edo azkentzea, baina Foru Aldundiak bere erabakiak hartu ditu. Itxiera ziurtatzen duen agiri-gehigarria joan den astean iritsi zen, nahiz eta agiriak iritsi zen lehenaren data mantendu.

punto de vista educativo y la posibilidad de su adaptación para conseguir su continuidad respetando los puestos de trabajo.

Joseba Arregi se refiere a un servicio de carácter supramunicipal, sustentado en un convenio con la Diputación Foral de Bizkaia, que decae al desaparecer la financiación foral, debiendo en todo caso tener presente el plazo de vigencia del convenio que resulta de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Al tiempo, entiende que la propuesta no ha sido lo suficientemente respaldada.

Ibon Rodriguez comparte esta última afirmación, ante el poco tiempo del que han dispuesto, y entiende que el expediente no ha sido del todo claro. Refiere distintas actuaciones sucedidas en el tiempo para concluir que, a su juicio, no se ha facilitado toda la información y se ha acabado presentando la propuesta de prisa y corriendo. Cree que el cierre es decisión municipal y que se ha faltado a la verdad cuando se aprueba un presupuesto en la sesión plenaria de noviembre en unos términos muy concretos sabiendo que no se iba a contar con la ayuda de la Diputación.

Joseba Arregi quiere explicar que la intención del Ayuntamiento era la adaptación, no la extinción, pero la Diputación Foral ha tomado sus decisiones. La acta que certifica el cierre llega la semana pasada, aunque el documento mantenga la fecha del primero que llegó.

Ignacio Robles jaunak interpretatzen du Udalak Aquariumarekin arazo bat duela, itxi egin nahi du eta aitzakia bat bilatzen du, eta 40/2015 Legeak egokitzeko aukera ematen duela adierazten du. Udalak nahi izan balu, egokitzapena behartuko zukeela uste du. Udalez gaindiko zerbitzua baldin bada, orain udal zerbitzu bat izan daiteke.

Joseba Arregi jaunak abendura arte ez dela foru finantzaketaren galera ofizialki ezagutu nabarmendu nahi du.

Jarraian, 40.525/2.019 zenbakiko idazkian jasotako proposamena bozkatu da, emaitza honekin:

.- Aldeko botoak: hiru (Elkarrekin-Podemos eta EH-BILDU).

.- Abstentzioak: bi (PP)

.- Kontrako botoak: sei (EAJ-PNV eta PSE-EE).

Jarraian, Ingurumeneko Hiri Zerbitzuetako eta Ingurumen Kalitateko zinegotziaren proposamena bozkatu da, emaitza honekin:

.- Aldeko botoak: sei (EAJ-PNV eta PSE-EE).

.- Abstentzioak: bi (PP)

.- Kontrako botoak: hiru (Elkarrekin-Podemos eta EH-BILDU).

Azken proposamen hori, emandako botoekin batera, era honetan jasota geratu da:

Ignacio Robles interpreta que el Ayuntamiento tiene un problema con el Aquarium, quiere cerrar y busca una excusa y señala que la Ley 40/2015 da la opción de la adaptación. Cree que si el Ayuntamiento hubiera querido, habría forzado la adaptación. Si se trataba de un servicio supramunicipal, ahora puede ser uno municipal.

Joseba Arregi quiere insistir en que no se ha conocido oficialmente la pérdida de la financiación foral hasta Diciembre.

Se procede a continuación a votar la propuesta contenida en el escrito nº 40.525/2.019, con el siguiente resultado:

.- Votos a favor: tres (Elkarrekin-Podemos y EH-BILDU).

.- Abstenciones: dos (PP)

.- Votos en contra: seis (PNV-EAJ y PSE-EE).

Seguidamente se procede a votar la propuesta del Concejal de Servicios Urbanos Ambientales y Calidad Ambiental con el siguiente resultado:

.- Votos a favor: seis (PNV-EAJ y PSE-EE).

.- Abstenciones: dos (PP)

.- Votos en contra: tres (Elkarrekin-Podemos y EH-BILDU).

Esta última propuesta, junto con los votos emitidos, queda recogida seguidamente:

**GETXO – AQUARIUM ZERBITZU  
PUBLIKOAREN JARDUERA  
ETETEA ONARTZEKO  
PROPOSAMENA**

Getxo – Aquarium zerbitzu publikoa emateari uzteko proposamenari dagokionez hasitako espedientea aztertu da.

**AURREKARIAK**

Getxoko Udalak, 2006ko uztailaren 28ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiarekin Akuaria erosi eta mantentzeko hitzarmena onartu zuen.

Geroago, 2006ko irailaren 14an, hitzarmen bat sinatu zen Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Akuaria erosi eta mantentzearen ondoretarako. Hitzarmen horretan 2025eko urtarrilaren 4ra arteko indarraldia jasotzen da eta data horretan amaitzen da udalak Akuaria kokatuta dagoen pabilioari dagokionez duen titulua. Era berean, Akuaria erosteko Bizkaiko Foru Aldundiaren 600.000 euroko ekarpena jasotzen duen araubide ekonomikoa erregulatzeko da eta, ondoren, Aldundiak 2006tik 2010era bitarteko ekitaldietarako (biak barne) emango zituen dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak finkatu ziren. Era berean, adostu zen 2011. urtetik aurrera Aldundiaren ekarpenak lau urteko epeetan zehaztuko zirela.

2006ko urriaren 27ko Osoko Bilkuran Getxoko Aquariuma udal zerbitzua ezarri zen, eta zerbitzu horren kudeaketa zuzeneko kudeaketa

**PROPUESTA PARA LA  
APROBACION DE CESE DE LA  
PRESTACIÓN DEL SERVICIO  
PÚBLICO GETXO – AQUARIUM**

Visto el expediente incoado con motivo de la propuesta para el cese de la prestación del servicio público Getxo – Aquarium

**ANTECEDENTES**

El Ayuntamiento de Getxo, en virtud de acuerdo adoptado en la sesión plenaria de 28 de julio de 2006, aprobó el convenio con la Diputación Foral de Bizkaia para la adquisición y mantenimiento del Acuario.

Posteriormente, el 14 de septiembre de 2006, se firma un convenio con la Diputación Foral de Bizkaia dirigido a la adquisición y mantenimiento del Acuario, en el mismo se recoge una vigencia hasta el 4 de enero de 2025, fecha en la que finaliza el título del ayuntamiento respecto al pabellón en el que se ubica el Acuario. Se regula, asimismo, el régimen económico en el que se recoge una aportación de la Diputación Foral de Bizkaia de 600.000 euros para la adquisición del Acuario y posteriormente se fijaron unas cuantías máximas de subvención por parte de la Diputación para los ejercicios 2006 a 2010, ambos inclusive. Se acuerda, asimismo, que a partir del año 2011 se definirán las aportaciones de la Diputación por periodos de cuatro años.

En el pleno del 27 de octubre de 2006 se implanta el servicio municipal de Getxo Aquarium, definiéndose su gestión a través del sistema de

sistemaren bidez definitu zen. 2010. eta 2014. urteetan, 2011-2014 eta 2015-2018 epealdietarako ekarpenak finkatzen zituzten hitzarmenarekiko addendak sinatu ziren.

Jarraipen Batzordeak, 2018ko urriaren 30eko bileran, Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena 2020an iraungitzeko zuen borondatea jaso zuen. Ondoren Jarraipen Batzordeak, 2019ko urriaren 25ean egin zuen bileran, Getxoko alkatearen eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko foru diputatuaren artean 2019ko urriaren 14an lortutako akordioa jaso zuen. Akordio horrek amaiera ematen dio hitzarmenari 2020ko abenduaren 31n, eta ekarpen batzuk egiten dira 2019. eta 2020. urteetarako, hain zuzen ere 244.257,71 euro 2019. urterako eta 60.000 euro 2020. urterako. Era berean jasota gertatu zen udalak, 2006ko hitzarmenarekin bat etorriz, hasiera batean borondatea zuela akuarioaren zerbitzua 2023ra arte mantentzeko; horregatik, uztailaren 29an BFAri idazki bat bidali zitzaion 2019ko urriaren 2a baino lehen bilera bat egiteko eskatuz, egun horretan amaitzen baitzen hitzarmena Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako erregulazio berrira egokitzeko epea; idazki horrek ez zuen erantzunik izan.

Udalak Getxo Aquarium zerbitzua ezarri zuenean Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu zuen zerbitzu horren kostuaren zatirik handiena eta, izan ere, udalak eta Foru Aldundiak 2006an zerbitzua

gestión directa. Los años 2010 y 2014 se suscriben addendas al convenio que fijan las aportaciones para el periodo 2011-2014, 2015-2018.

La Comisión de Seguimiento, en su reunión de 30 de octubre de 2018, recoge ya la voluntad de la Diputación Foral de Bizkaia de extinguir el convenio el año 2020. Posteriormente, la Comisión de Seguimiento, en reunión celebrada el 25 de octubre de 2019, recoge el acuerdo alcanzado con fecha 14 de octubre de 2019 entre la Alcaldesa de Getxo y la Diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural que pone final al convenio el 31 de diciembre de 2020, con una serie de aportaciones para los años 2019 y 2020 consistentes en 244.257,71 euros para el año 2019 y 60.000 euros para el año 2020. Se recoge, asimismo, que por parte del ayuntamiento hay una voluntad inicial, en coherencia con el convenio de 2006, de mantener el servicio de Acuario hasta el año 2023; de ahí que se remitiera el día 29 de julio un escrito a la DFB solicitando una reunión a celebrar antes del día 2 de octubre de 2019, fecha en la que finalizaba el plazo para adaptar el convenio a la nueva regulación recogida en la Ley 40/2015 de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público; escrito del que no se recibió respuesta.

La implantación del servicio de Getxo Aquarium por parte del ayuntamiento se fundamentaba económicamente en la asunción por parte de la Diputación Foral de Bizkaia de la mayor parte del coste de dicho servicio, de hecho las



ezarri zenetik 2019ra arte egindako ekarpenek hala adierazten eta erakusten dute, proposamen honi erantsitako taulan ikus daitekeen bezala.

Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena iraungitzat emateko hartu duen erabakia oinarritzeko adierazten da ez dela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen zehaztapenetara egokitu eta, beraz, indarra galdu duela 2019ko urriaren 2an.

2019. urteari dagokionez, Getxoko udaleko alkateak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko foru diputatuak dagokion eranskina sinatu zuten azaroaren 20an. Bertan jasotzen denez, hitzarmena ez da egokitzen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen zehaztapenetara eta horren ondorioz hitzarmenak 2019ko urriaren 2an indarraldia galdu du. Eranskinean 2019. urteari dagokion ekarpena baino ez da finkatzen, 244.257,71 eurokoa eta, horrekin, dagoen hitzarmena likidatuko da.

Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketa-konpromisorik ez dagoenez, zerbitzuari eustea udalaren ekarpenaren kontura baino ezin da burutu eta horrek onartu beharreko gastu oso garrantzitsu bat, 244.000 euro ingurukoa, etengabe handitzea ekarriko luke. Izan ere, une honetan premia nabarmenagoak daudela kontuan hartuta, lehenetsuna ematen zaio gastu hori

aportaciones municipales y de la Diputación Foral desde la implantación del servicio el año 2006 hasta el año 2019 así lo refleja, tal y como se puede ver en el cuadro adjunto a la presente propuesta.

La decisión de la Diputación Foral de Bizkaia de dar por extinguido el convenio, se ampara también en que al no haberse adaptado a las determinaciones de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público, ha perdido vigencia el 2 de octubre de 2019.

Respecto al año 2019 se ha suscrito la addenda correspondiente con fecha 20 de noviembre entre la Alcaldesa del Ayuntamiento de Getxo y la Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia en la cual se recoge cómo la no adaptación del convenio a las determinaciones de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público hace que el convenio haya perdido su vigencia el 2 de octubre de 2019. En la addenda exclusivamente se fija la aportación correspondiente al año 2019, que se cifra en la cantidad de 244.257,71 euros, liquidándose con ello el convenio existente.

La situación actual, en la que el compromiso de financiación de la Diputación Foral de Bizkaia ya no existe, supone que mantener el servicio debería hacerse con cargo exclusivamente a la aportación municipal, lo que supondría incrementar de manera constante un gasto muy importante a asumir, de aproximadamente 244.000 €uros que, habida cuenta la existencia de



udal-jardueraren beste helburu batzuetara bideratzeko beharrari.

Bestalde, akuarioaren zerbitzua kudeatzeko erabiltzen den zerbitzuen arloko kontratua, berariazko luzapenik egiten ez bada, 2020ko urtarrilaren 31n amaitzen da eta, beraz, data hori planteatzen da berez zerbitzua emateari uzteko. Zerbitzua emateari uzteak ez du esan nahi arrainen eta Akuarioko instalazioen edukari jaramonik egin behar zaionik; izan ere, arrainak eta bestelakoak Akuarioko beste instalazio batzuetara eramán ahal izango dira, ingurumenaren dibulgazioaren esparruan mantentzea eta jarraitutasuna bermatzeko.

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK:

**LEHENENGOA:** Administrazio publikoek errespetatu behar dituzten printzipioen artean daude herritarrei zerbitzu eraginkorra ematea, baliabide publikoak eraginkortasunez esleitzea eta erabiltzea, eta administrazio publikoen arteko lankidetzeta, laguntza eta koordinazioa (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1 artikulua).

**BIGARRENA:** 2006ko urriaren 27an Osoko Bilkurak Getxoko Aquariuma udal zerbitzua ezarri zuen, kudeaketa zuzenaren bidez.

Udalbatzari dagokio zerbitzua emateari uztea (Toki Araubidearen

necesidades más significativas en este momento, es por lo que se prioriza la necesidad de destinarla a otros fines de la actividad municipal.

Por otra parte, el contrato de servicios mediante el cual se está gestionando el servicio de acuario vence, si no se realiza una prórroga expresa, el próximo 31 de enero de 2020 siendo por tanto esta la fecha en la que de manera natural se plantea el cese en la prestación del servicio. El cese de la prestación del servicio no significa que deba desatenderse el contenido de peces e instalaciones del Acuario que deberán gestionarse de manera que pueden ser trasladados a otras instalaciones de Acuario que garanticen su mantenimiento y continuidad en el ámbito de la divulgación medioambiental.

#### FUNDAMENTOS JURIDICOS:

**PRIMERO:** Entre los principios que deben respetar las Administraciones Públicas se encuentra el de servicio efectivo a los ciudadanos, eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos, y cooperación, colaboración y coordinación entre las Administraciones Públicas (artículo 3.1. de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público).

**SEGUNDO:** El Pleno municipal, con fecha 27 de octubre de 2006 implanta el servicio municipal de Getxo Aquarium, mediante la forma de gestión directa.

Corresponde al Pleno municipal el cese de la prestación del servicio (Art. 22 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril,

Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. Artikulua).

OINARRIA.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondarea arautzen duena; 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta arlo honetan aplikatzekoak diren gainerako legeak

Lurraldeko Informazio Batzordeak eskatuta, aldeko sei botorekin (EAJ-PNV eta PSE-EE), bi abstentziorekin (PP) eta aurkako hiru botorekin (ELKARREKIN PODEMOS eta EH BILDU), Udalbatzari honako hau aurkeztu zaio:

**ERABAKI-PROPOSAMENA:**

LEHENENGOA: Getxo – Aquarium Zerbitzu Publikoaren prestazioa etetea onestea.

Zerbitzua emateari uzteko data 2020ko urtarrilaren 31 izango da, egun horretan amaitzen baita enpresa esleipendunarekin sinatutako kontratua.

BIGARRENA: Zerbitzua emateari utzi ondoren Udal Inbentarioan Akuarioaren zerbitzuari atxikitako udal ondasunen aldaketak islatzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea inplikaturako sailei, hau da, Kontu-hartzailera, Diruzaintza, Ondarea eta beste batzuei, jakinarekin

Reguladora de las Bases del Régimen Local)

VISTOS.- Ley 7/1985, de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; Ley 33/2003 Reguladora del Patrimonio de las Administraciones Públicas; Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales; Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; y demás legislación de aplicación a la materia.

A instancia de la Comisión Informativa de Territorio, con seis votos a favor (EAJ-PNV y PSE-EE), dos abstenciones (PP) y tres en contra (EH-BILDU y Elkarrekin-Podemos), se eleva a consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente,

**PROPUESTA DE ACUERDO:**

PRIMERO: Aprobar el cese de la prestación del Servicio Público Getxo – Aquarium.

La fecha del cese de la prestación del servicio será el día 31 de enero de 2020, fecha en la que finaliza el contrato suscrito con la empresa adjudicataria.

SEGUNDO: Reflejar en el Inventario Municipal las variaciones de los bienes municipales afectos al servicio del Acuario, tras el cese de la prestación del servicio.

TERCERO: Dar traslado a los departamentos implicados: Intervención, Tesorería, Patrimonio y

gainean egon daitezen eta bidezko ondorioak izan ditzan.

LAUGARRENA: Alkate-udalburuari ahalmena ematea erabaki hau betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**3.- GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA SOZIJETATE ANONIMOA GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA SOZIJETATE MUGATURA BEHAR BEZALA ALDATU IZANA JASOTZEN DUEN ESKRITURA PUBLIKOAREN JAKITUN GERATZEA, BAITA HURA MERKATARITZA ERREGISTROAN INSKRIBATU IZANAREN JAKITUN ERE.**

#### EGITATEZKO AURREKARIAK

**LEHENENGOA.-** Getxoko Udaleko Udalbatzak 1998ko abenduaren 18an hartutako 400. erabakiaren bidez, Getxoko Azokaren obra eta zerbitzu publikoaren Administrazioako Emakida Kontratuaren lizitazioaren baldintza teknikoaren pleguak onetsi ziren.

**BIGARRENA.-** Getxoko Udaleko Udalbatzak 1999ko apirilaren 30ean hartutako 122. erabakiaren bidez, GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO S.A. enpresa (IFZ: A-95014569) Getxoko Azokaren obra eta zerbitzu publikoaren Administrazioako Emakida Kontratuaren adjudikaziodun izan zen (lizitazioaren baldintza teknikoaren plegua – 2. baldintza 1. apartatua/ administrazio baldintzen plegua - 1. baldintza).

otros, de este acuerdo para su conocimiento y efectos.

CUARTO: Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo

**3.- PROPUESTA PARA QUEDAR ENTERADOS DE LA EFECTIVA ELEVACIÓN A ESCRITURA PÚBLICA DE LA TRANSFORMACIÓN DE GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA A GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA Y SU CORRESPONDIENTE INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO MERCANTIL**

#### ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Que por Acuerdo del pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 18 de diciembre de 1998, número 400, fueron aprobados los Pliegos de Cláusulas Técnicas de la licitación del Contrato de Concesión Administrativa, conjunta de obras y servicio público del Mercado de Getxo.

**SEGUNDO.-** Que por Acuerdo del pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 30 de abril de 1999, número 122, GETXOKO AZOKA- MERCADO DE GETXO SA, con NIF A-95014569 resultó adjudicataria del Contrato de Concesión Administrativa, conjunta de obras y servicio público del Mercado de Getxo (Pliego de Cláusulas Técnicas de la licitación – cláusula 2ª apartado 1º / Pliego de Cláusulas Administrativas – cláusula 1ª);

**HIRUGARRENA.-** Getxoko Udaleko 2019ko otsailaren 27ko osoko bilkurako Erabakiaren bidez, Getxoko Azokaren obra eta zerbitzu publikoaren Administrazioako Emakida Kontratua lagatzea baimendu zen, Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak 1999ko apirilaren 30eko erabaki zuena (112. Erabakia). Lagapena adjudikaziodunak, GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SAK, GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADAri egingo dio. Aipatutako emakidetik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztiak azken horri subrogatuko zaizkio.

Baimen hori sei hilabetez (erabaki hau onestetik aurrera zenbatzen hasita) honako hauen mende geldituko zen:

- GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADAK Merkataritza Erregistroan inskribatu eta eskritura publiko bidez eraldatzea.
- Behin betiko bermea Udal Diruzaintzan aurkeztea, legez baimendutako edozein modalitatetan, Fidantza hori jabari publikoaren balioaren % 3 izango da, Algortako Azokaren zerbitzu publikoa ustiatzeko lizitazioa eraentzen duten administrazio-baldintzen pleguetako bederatzigarren baldintzan (Behin betiko bermea) xedatutakoarekin bat etorritik; aipatutako pleguak Udaltzatik 1998-12-18an hartutako 400. Erabakiaren bidez onetsi ziren.

**TERCERO.-** Que por Acuerdo del pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 27 de febrero de 2019, se autorizó la cesión del Contrato de Concesión Administrativa, conjunta de obras y servicio público del Mercado de Getxo acordada por Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 30 de abril de 1999, número 122 de la adjudicataria GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA a GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA quién quedará subrogada en todos los derechos y obligaciones de la citada concesión.

Dicha autorización quedó condicionada en el plazo de 6 meses desde la aprobación del presente acuerdo a

- La efectiva transformación mediante escritura pública e inscripción en el Registro Mercantil por parte de GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA
- Presentación de la fianza definitiva en la Tesorería Municipal bajo cualquiera de sus modalidades legalmente permitidas, referida al 3% del valor de dominio público de acuerdo a lo dispuesto en la Cláusula Novena (Garantía Definitiva) de los Pliegos de Cláusulas Administrativas que rigen la licitación de la explotación del servicio público del Mercado de Algorta, aprobados por Acuerdo Plenario nº 400 de 18.12.1998 establecen en su Cláusula Novena (Garantía Definitiva),

**LAUGARRENA.-** 22.473/2018 idatziaren bitartez, GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SAK baimena eskatu zuen bere forma juridikoa SOZIJETATE MUGATU bihurtzeko finkatutako epea luzatzeko.

**BOSGARRENA.-** Fidantzaren ziurtagiria Udal Diruzaintzan jasota dago. Fidantza hori Getxoko Udaleko 2019ko otsailaren 27ko osoko bilkurako Erabakiaren bidez onetsi zena, era berean, sozietate bihurtzeko enpresa berriaren izenean beste ordain-gutuna jaulkiko da.

**SEIGARRENA.-** Getxoko Udaleko 2019ko uztailaren 24ko osoko bilkurako 125. Zenbaki duen Erabakiaren bidez.

*- Osoko Bilkurari jakinaraziko zaio GETXOKO AZOKA- MERCADO DE GETXO SAK (IFZ: A-95014569) behin betiko bermea aurkeztu duela Udal Diruzaintzan, jabari publikoaren balioaren % 3koa, Algortako Azokaren zerbitzu publikoa ustiatzeko lizitazioa eraentzen duten administrazio-baldintzen pleguetako bederatzigarren baldintzan (Behin betiko bermea) xedatutakoarekin bat etorriz; aipatutako pleguak Udalbatzak 1998-12-18an hartutako 400. Erabakiaren bidez onetsi ziren.*

*-Getxoko Udaleko 2019ko otsailaren 27ko osoko bilkurako Erabakian finkatutako epearen luzapena*

**CUARTO.-** Que mediante escrito número 22.473/2018 GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA solicita la prórroga del plazo fijado para transformar su forma jurídica en SOCIEDAD LIMITADA.

**QUINTO.-** Que consta en el expediente Certificado de la Tesorería Municipal en la que consta depositada la garantía fijada en el Acuerdo del pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 27 de febrero de 2019,) así cómo que una vez producida la transformación societaria se procederá a la emisión de una nueva carta de pago a nombre de la nueva denominación social;

**SEXTO.-** Que por Acuerdo nº 125 del pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 24 de julio de 2019, se acordó:

*- Dar cuenta al Pleno de la presentación por parte de GETXOKO AZOKA- MERCADO DE GETXO SA, con NIF A-95014569 de la fianza definitiva en la Tesorería Municipal al 3% del valor de dominio público de acuerdo a lo dispuesto en la Cláusula Novena (Garantía Definitiva) de los Pliegos de Cláusulas Administrativas que rigen la licitación de la explotación del servicio público del Mercado de Algorta, aprobados por Acuerdo Plenario nº 400 de 18.12.1998 establecen en su Cláusula Novena (Garantía Definitiva),*

*Autorizar la prórroga del plazo fijado en el Acuerdo del pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 27*

*baimenduko da, eskritura publiko bidez eta GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA Merkataritza Erregistroan inskribatzearen bidez eraldaketa egiteko, 2019ko abenduaren 31ra arte.*

**ZAZPIGARRENA.-** Erregistroan 39360. zenbakia duen espedientean, zeina 2019ko abenduaren 4an sartu baitzen, GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA enpresak sozietate anonimoko izaera sozietate mugatura (GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA) aldatu izanaren eskritura publikoaren kopia jasota dago, baita Merkataritza Erregistroko dagokion inskripzioa ere..

**ZORTZIGARRENA:-** Espedientean jasota dago udal-ondarera atxikitako AOTaren 2019ko abenduaren 4ko txostena baiezkoren alde,;

Aurreko aurrekariak ikusita, honako hauek aplikatuko dira:

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENENGOA.-** Algortako Azokako zerbitzu publikoko ustiapenaren lizitazioa agintzen duten administrazio-baldintzen pleguek, 1998-12-18an Udalbatzak hartutako 400. erabakiz onetsita, haren bederatzigarren baldintzan ("Behin betiko bermea") honako hau ezartzen da:

*"Adjudikaziodunak behin betiko fidantza aurkeztu beharko du legez baimendutako edozein modalitate erabiliz; fidantza hori okupatutako*

*de febrero de 2019, para la efectiva transformación mediante escritura pública e inscripción en el Registro Mercantil por parte de GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA hasta el 31 de diciembre del 2019.*

**SEPTIMO.-** Que consta obrante en el expediente con nº de Registro 39360 y fecha de entrada de 4 de diciembre del 2019 copia de la escritura pública de transformación de GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA a GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA y su correspondiente inscripción en el Registro Mercantil.

**OCTAVO.-** Que consta en el expediente Informe favorable de 4 de diciembre del 2019 del T.A.G. adscrito a Patrimonio,;

A la vista de los anteriores antecedentes son de aplicación los siguientes:

## **FUNDAMENTOS DE DERECHO**

**PRIMERO.-** Que los Pliegos de Cláusulas Administrativas que rigen la licitación de la explotación del servicio público del Mercado de Algorta, aprobados por Acuerdo Plenario nº 400 de 18.12.1998 establecen en su Cláusula Novena (Garantía Definitiva) lo siguiente;

*"El adjudicatario deberá presentar fianza definitiva bajo cualquiera de sus modalidades legalmente permitidas, referida al 3% del valor de*



*jabari publikoko balioaren % 3 eta hobekuntza-obren aurrekontuaren % 4 izango da. Horretarako hamabost eguneko epea izango du, adjudikazio-erabakia jakinarazten denetik aurrera”.*

**BIGARRENA.-** 13/95 Legearen 115. artikuluan (“Kontratuak lagatzea”) xedatutakoa aplikatu behar da; honela dio:

*1. Kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango zaizkio, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarri izan ez badira.*

*2. Adjudikaziodunek beren eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:*

- *a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena.*
- *b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez gauzatura izan behar du, edo kontratuaren iraupen-eparearen bosten bateko aldia ustiatu behar izan du zerbitzua, zerbitzu publikoak kudeatzeko bada.*
- *c) Lagapen-hartzaileak administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, 15. artikulutik 20.era bitartean eskatzen zaion kaudimena izan behar du; gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio.*

*dominio público ocupado y un 4% del presupuesto de la sobras de mejora, en el plazo de quince días a contar desde la notificación del acuerdo de adjudicación”.*

**SEGUNDO.-** Que resulta de aplicación lo dispuesto en el artículo 115 de la Ley Contratos 13/ 95 Cesión de los Contratos a tenor del cuál:

*1. Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos a un tercero siempre que las cualidades técnicas o personales del cedente no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato.*

*2. Para que los adjudicatarios puedan ceder sus derechos y obligaciones a terceros deberán cumplirse los siguientes requisitos:*

- *a) Que el órgano de contratación autorice expresamente y con carácter previo la cesión.*
- *b) Que el cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato, o realizada la explotación al menos durante el plazo de una quinta parte del tiempo de duración del contrato si éste fuese de gestión de servicios públicos.*
- *c) Que el cesionario tenga capacidad para contratar con la Administración y la solvencia exigible de conformidad con los artículos 15 a 20, debiendo estar debidamente clasificado si tal requisito ha sido exigido al cedente.*
- *d) Que se formalice la cesión, entre el adjudicatario y el cesionario, en escritura pública.*



- *d) Adjudikazioddunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da.*

*3. Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da.*

*4. Administrazioak ez du baimenduko honako hauei lagatzea kontratua: sailkapena etenda duten pertsonen eta kontratatze desgaikuntza duten pertsonen.*

**HIRUGARRENA.-** Udalbatza hura ebazteko eskuduna da, Getxoko Udaleko Udalbatzak 1999ko apirilaren 30ean hartutako 122. Erabakian xedatutakoarekin bat etorriz. Erabaki horren bidez, GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA enpresa (IFZ: A-95014569) Getxoko Azokaren obra eta zerbitzu publikoaren Administrazioako Emakida Kontratuaren adjudikaziodun izan zen.

Lurraldeko Informazio Batzordeak eskatuta, Udalbatzari honako hau aurkeztu zaió:

### **ERABAKI PROPOSAMENA**

**LEHENENGOA.-** Aurrekariak eta arestian aipatutako zuzenbideko oinarriak ikusita, honako hau erabaki da:

- GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA sozietate anonimoa GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA sozietate mugatura behar bezala aldatu izana jasotzen duen eskritura

*3. El cesionario quedará subrogado en todos los derechos y obligaciones que corresponderían al cedente.*

*4. La Administración no autorizará la cesión del contrato en favor de personas incursas en suspensión de clasificaciones o inhabilitadas para contratar.*

**TERCERO.-** Que resulta competente para su resolución el Pleno conforme a lo dispuesto en el acuerdo del pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 30 de abril de 1999, número 122 por el que Getxoko Azoka – Mercado de Getxo S.A, con NIF A-95014569 resultó adjudicataria del Contrato de Concesión Administrativa, conjunta de obras y servicio del Mercado de Getxo.

A instancia de la Comisión Informativa de Territorio, se eleva a consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente,

### **PROPUESTA DE ACUERDO**

**PRIMERO.-** A la vista de los antecedentes y fundamentos de derecho anteriormente citados se acuerda:

- Quedar enterados de la efectiva elevación a escritura pública de la transformación de GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA a GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA y su correspondiente inscripción

publikoaren jakitun geratzea, baita hura Merkataritza Erregistroan inskribatu izanaren jakitun ere; hala, Getxoko Udalbatzaren 2019ko otsailaren 27ko Erabakia bete da. Erabaki horren bitartez, Getxoko Azokaren obra eta zerbitzu publikoaren Administrazio Emakida Kontratua lagatzea baimendu zen, zeina Getxoko Udalbatzaren 1999ko apirilaren 30eko 122. Erabakiaren bidez erabaki baitzen GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA sozietateari (orain GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA denari) adjudatzea.

**BIGARRENA.-** Ebazpen hau aipatutako interesdunei eta Udal Kontu Hartzailetzako Aholkularitza Juridikoko Sailari helaraziko zaizkie.

**HIRUGARRENA.-** Udaleko Inbentarioan baimen hau agerraraziko da.

**4.- GETXOKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA BEHIN-BEHINEKO ONARTZEKO PROPOSAMENA (7.1.3, 11.6.2, 7.4.7, 6.3.29. 6.3.33, 7.4.1, 7.4.2, 7.4.4, 7.1.13 ETA 6.3.40 ATALEEI DAGOKIONA).**

Gai hau hurrengo saio baterako utzi behar da, ingurumeneko ebaluazio

en el Registro Mercantil por la que se da cumplimiento al Acuerdo del pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 27 de febrero de 2019, por el que se autorizó la cesión del Contrato de Concesión Administrativa, conjunta de obras y servicio público del Mercado de Getxo acordada por Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Getxo de fecha 30 de abril de 1999, número 122 de la adjudicataria GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SA a GETXOKO AZOKA – MERCADO DE GETXO SOCIEDAD LIMITADA.

**SEGUNDO.-** Dar traslado de la presente resolución así como de los informes citados en los antecedentes a los interesados así como al Departamento de Intervención Municipal y Asesoría Jurídica.

**TERCERO.-** Reflejar en el Inventario Municipal la autorización que se acuerda

**4.- PROPUESTA PARA LA APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA QUE AFECTA A LOS ARTS. 7.1.3, 11.6.2, 7.4.7, 6.3.29. 6.3.33, 7.4.1, 7.4.2, 7.4.4, 7.1.13 Y 6.3.40 DE SUS NORMAS URBANÍSTICAS.**

El presente asunto debe quedar para una próxima sesión, a la espera de las

estrategikoaren prozedurari hasiera emango dion ingurumeneko - dokumentuan egin beharreko egokitzapenen zain.

Ibon Rodriguez jaunak aldaketak bereizita tratatzea iradokitzen du, artikuluz artikulua. Ignacio Robles jauna iritzi berekoa da.

**5.- ITURGITXI KALEKO 49. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINA ORDEZKATZEKO XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN-BETIKO ONESTEKO ETA EGINDAKO ALEGAZIOA EBAZTEKO PROPOSAMENA.**

Ikusi da SILVIA CARRASCAL URQUIDI andreak UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN SLren izenean eta ordezkartzan aurkeztutako idatzia dela eta hasitako espediente. Idatziarekin batera xehetasun-azterlana aurkeztu zuen, Iturgitxi kaleko 49. zenbakiko eraikina ordezkatzeari buruzkoa.

GERTAERA.- 2018-03-06ko idatziaren bidez, SILVIA CARRASCAL URQUIDI andreak, UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN SLren izenean eta ordezkartzan, xehetasun azterketa aurkeztu zuen Iturgitxi kaleko 49. Zenbakiko eraikina ordezteko, ARKI-PROJECT NORTE SLPko Luciano Cobaleda Hernández eta Raúl García García arkitekto jaunek idatzitakoa.

GERTAERA.- 2018-11-23an, interesdunak ingurumen dokumentua aurkeztu zuen, sinpletutako ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren bidez izapidetzeko.

necesarias adaptaciones en el documento ambiental que dé inicio al procedimiento de evaluación ambiental estratégico.

Ibon Rodriguez sugiere que las Modificaciones se traten separadamente, artículo por artículo. Ignacio Robles es de la misma opinión.

**5.- PROPUESTA PARA LA APROBACION DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA SITA EN EL NÚMERO 49 DE LA CALLE ITURGITXI, CON RESOLUCIÓN DE LA ALEGACIÓN PRESENTADA.**

Visto expediente incoado con motivo del escrito presentado por DÑA. SILVIA CARRASCAL URQUIDI, en nombre y representación de UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN, S.L., acompañando Estudio de Detalle para la sustitución del edificio sito en el nº 49 de la calle Iturgitxi; y,

RESULTANDO.- Que, mediante escrito de 06.03.2018, DÑA. SILVIA CARRASCAL URQUIDI, en nombre y representación de UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN, S.L., acompaña Estudio de Detalle para la sustitución del edificio sito en el nº 49 de la calle Iturgitxi, redactado por los Arquitectos D. Luciano Cobaleda Hernández y D. Raúl García García, de ARKI-PROJECT NORTE SLP.

RESULTANDO.- Que, el 23.11.2018, presenta la interesada Documento Ambiental para su tramitación por el procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada,

Dokumentu hori SVPA Servicios de Protección Ambientaleko Cyntia Izquierdo Zamora andreak eta Carlos N. Díaz Jiménez jaunak idatzi zuten.

redactado por Dña. Cyntia Izquierdo Zamora y D. Carlos N. Díaz Jiménez, de "SVPA, Servicios de Protección Ambiental".

GERTAERA.- 2018-12-28an Ingurumenaren Ebaluazio Akustikoaren Azterlana aurkeztu zuen, CECORek idatzia.

RESULTANDO.- Que, el 28.12.2018, acompaña Estudio de Evaluación Acústica Ambiental, redactado por CECOR.

GERTAERA.- 2019-01-10ean ingurumen dokumentuaren eta azterlan akustikoaren kopia bidali zitzaion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendaritzari, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura sinplifikatua abia zezan.

RESULTANDO.- Que, en fecha 10.01.2019, se remite copia del Documento Ambiental y el Estudio Acústico a la Dirección Ambiental del Gobierno Vasco, a fin de que se dé inicio al procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada.

GERTAERA.- Udal arkitektoak txostena egin zuen 2019-04-15ean, eta xehetasun azterlana onesteko kontuan hartu beharko baldintzak adierazi zituen.

RESULTANDO.- Que, la Arquitecto Municipal emite informe el 15.04.2019, señalando las condiciones a tener en cuenta para la aprobación del Estudio de Detalle.

GERTAERA.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendaritzatik jakinarazpena jaso zen, bidalitako dokumentazioa zuzentzeko eskatzen zuena.

RESULTANDO.- Que, desde la Dirección Ambiental del Gobierno Vasco se recibe comunicación instando la subsanación de la documentación remitida.

GERTAERA.- 2019-05-03an, interesdunak ingurumen dokumentua eta eragin akustikoaren azterlana aurkeztu zituen, adierazi zitzaizkion akatsak zuzenduta, sinpletutako ingurumen ebaluazioaren prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

RESULTANDO.- Que, en fecha 03.05.2019, presenta la interesada Documento Ambiental y Estudio de Impacto Acústico corrigiendo las deficiencias que le fueran apuntadas en orden a continuar el procedimiento de evaluación ambiental simplificada.

GERTAERA.- 2019-05-07an ingurumen dokumentuaren eta azterlan akustikoaren kopia bidali zitzaion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendaritzari, sinpletutako ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurarekin jarrai zezan.

RESULTANDO.- Que, en fecha 07.05.2019, se remite copia del Documento Ambiental y el Estudio Acústico corregidos a la Dirección Ambiental del Gobierno Vasco, a fin de que continúe el procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada.

GERTAERA.- 2019-05-21ean, UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN SL enpresak beste azterlan akustiko bat aurkeztu zuen, aurrekoa aldatuta, eta kopia bidali zitzaion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendaritzari, jada helarazitako dokumentazioaren osagarri gisa.

GERTAERA.- Azpiegituren Unitateko buruak txostena egin zuen 2019-05-24an, eta bertan hirigintza-obrei buruzko xehetasunak azaldu zituen.

GERTAERA.- Udal arkitektoak txostena egin zuen 2019-06-07an, azterlan akustiko berriarekin lotutakoa.

GERTAERA.- Administrazio orokorreko teknikariaren eta idazkari nagusiaren txostenak jasota daude.

GERTAERA.- Tokiko Gobernu Batzarraren 2019-06-25eko 295. Erabakiaren bidez xedatu zen xehetasun-azterketa hasieran onestea, eta horren onespena ingurumen ebaluazio estrategikoko prozeduraren emaitzaren mende gelditu zen.

GERTAERA.- Erabaki hori jendaurrean jarri zen, espedientearekin batera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 130. zenbakian (2019-07-09koan) eta "El Correo" eta "Berria" egunkarietan (egun berekoetan) argitaratutako iragarkien bidez. Gainera, interesdunei pertsonalki jakinarazi zitzairen.

RESULTANDO.- Que, con fecha 21.05.2019, la mercantil UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN, S.L., acompaña nuevo Estudio Acústico, modificando el anterior, del que se remite copia a la Dirección Ambiental del Gobierno Vasco, como complemento de la documentación ya remitida.

RESULTANDO.- Que, la Unidad de Infraestructura emite informe el 24.05.2019, con especificación de las obras de urbanización.

RESULTANDO.- Que, la Arquitecto Municipal emite informe el 07.06.2019, en relación con el nuevo Estudio Acústico.

RESULTANDO.- Que, constan informes de la Técnico de Administración General y de la Secretaría General.

RESULTANDO.- Que, por acuerdo nº 295, adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 25.06.2019, se dispone la aprobación inicial del Estudio de Detalle, supeditada la aprobación a lo que resulte del procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

RESULTANDO.- Que, dicho acuerdo se somete a información pública, junto con su expediente, mediante anuncios que se publican en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 130, de 09.07.2019 y en los diarios "El Correo" y "Berria" de la misma fecha, con notificación personal a los interesados.

GERTAERA.- Jendaurreko informaziorako izapidea irekita zegoen bitartean, Alberto Conde Ledo jaunak 23.600/2.019 idatzia aurkeztu zuen. Horren bidez, xehetasun azterketak aipatzen dituen lursailen titulartasuna ezbaian jarri zuen.

GERTAERA.- Alegazioaren kopia sustatzaileei helarazi ostean, 2019-10-04ko idatziaren bidez erantzun zen, eta adierazi zen Nerbioi kaleko 10. eta 14. zenbakien arteko pasabidea gaur egun dagoen moduan utziko dela. Hala, ez zen jo eraikitzeke espazio gisa, eta beste plano batzuk aurkeztu zituzten, lerrokadurak zuzenduta (I-06, I-07, O-01 eta O-02 planoak).

